

Burujabetza eta justizia fiskala

Europa eta Hego Euskal Herriko zerga-politikaren azterketa

2016ko maiatza



www.lab.eus

AURKIBIDEA

“PANAMAKO PAPERAK”: PILATZE EREDU BAKARRA, BI SISTEMA FISKAL.....	5
ZERGA-PRESIOA EUROPAN: BILAKAERA ETA ANALISI KONPARATIBOA.....	6
HEGO EUSKAL HERRIKO ZERGA-PRESIOA, EUROPAKO BATASUNeko TXIKIENETAKOA.	7
BURUJABETZA FISKALA BERRESKURATU: EZ DAGO BIDEZIDORRIK.	9
ZERGA-SISTEMAREN EGINKIZUN BIRBANATZAILEA SENDOTU.....	9
Indarrean dagoen zerga-sistemaren ezaugarri nagusiak.....	10
KARGA FISKALen BANAKETA BIDEGABEA.....	10
Zeharkako zergak errenten banaketan duten eragin kaltegarria.....	11
Langileriak kapitalak eta enpresek ordaintzen duten zuzeneko zergen bikoitza ordaintzen du.....	11
GURE PROPOSAMENA.....	12

“PANAMAKO PAPERAK”: PILATZE EREDU BAKARRA, BI SISTEMA FISKAL

“Panamako paperen” eskandaluak egunerokotasun politiko eta ekonomikoa astindu du. Historia osoko kazetaritza-filtraziorik handiena. 200.000 pantaila-enpresa baino gehiagok paradisu fiskalekin duten lotura eman da argitara, mundu osoko ehunka pertsonalitate nabarmen zipriztinduz: euren ondarearen inguruko sekretu aitorezinak ezkutatzen zituztenak, estatu buruak, errege-etxeetako kideak, enpresari handiak, eliteko kirolariak eta mota guztietako famatuak barne.

Albisteak argitaratzeak sortutako zalaparta gorabehera, mundu guztiarentzat ezaguna zen ustezko sekretu batean aurrean gaude; eta egia esan, gertakari honek arazo estruktural eta soberan ezaguna denaren izebergaren muturra baino ez du ikusarazten.

Hipokrita litzateke ebidentzia ukatzea. Besteak beste 70eko hamarkadatik hona 500 baino gehiago izan baitira orain aurkitu dituzten enpresa opakoen sorreran Panamako buffet famatuarekin lotura zuten banku eta entitate filialak.

Hau gutxi balitz, paradisu fiskalen zerrenda luzea dago, eta batzuk Europar Batasunaren lurraldean daude kokatuak. Hortaz, galde dezakegu zein punturaino duten interesa Estatu kideek eta bertako zerga-agintariak inpunitate espazio hauen desagertzean, zerga iruzurra eta diru beltzaren garbiketarekin harremana duten pertsonen nortasuna ezkutatzeko hain baliagarri direnak.

Hala ere, “Panamako paperen” kasua pizgarria izan daiteke, edo presio elementua, ingeniariak fiskaleko praktika hauen erabilera eragotziko duen nazioarteko zerga-arkitektura berrirantz pausoak emateko. Zentzu honetan, egia da zenbait paradisu fiskali amaiera emateak nazioarteko lankidetzak eskatzen duela, baina dorpezia nabarmena litzateke argudio hau beste alde batera begiratzeko alibi moduan erabiltzea.

Hortaz, azken egunotako gertakarien ondoren, zerga-agintariak, foralek barne, aukera ezin hobea dute euren benetako borondate politikoa eta determinazioa erakusteko zerga-iruzurra borrokatzeari begira, zergen ordainketa legalki saihestea ahalbidetzen duten arau-zirikituak ixtetik hasita.

Gogoan izan behar dugu langileok gure soldatak behar ditugula bizirauteko, hauek agintari fiskalek kontrolatzen dituztela eta errentzioei lotuak daudela. Hortaz, nagusiki euren betebeharrak fiskalak betetzen dituzten zergadunetz ari gara. Zerga-iruzurraren zatirik handiena aberastasun handietan eta jarduera ekonomiko eta profesionaletan pilatzen da, batez ere, enpresa handi eta multinazionaletan, bide ugari dituztelako zergak ez ordaintzeko.

Gainera, langileok, laneko errenten gainean, zerga-gainefortzu desproporzionatu eta bidegabekoa inposatzen digun zerga-sistema bati lotuak gaude. BEZa bezalako zeharkako zergek eragin erregresiboa dute errentaren banaketan, eta gero eta pisu handiagoa dute diru-bilketan.

Beste alde batetik, PFEZa da errentaren banaketan dauden desberdintasunak murrizten laguntzen duen zerga figura bakarra, baina laneko errenten gainekoa da nagusiki, hauek izanik zergaren progresibitateari eusten diotenak. Bien bitartean, kapitaleko errentek eta irabazi enpresarialek pribilegiozko tratua jasotzen dute eta laneko errentek baino ahalegin fiskal txikiagoa egiten dute.

Bidegabekeria bikoitz honek ekitate fiskal eta justizia sozialeko printzipioei eraso egitea suposatzen du, edozein demokrazia aurreraturen giltzarria direnak. Printzipio hauek behin betiko hausteak Estatuaren zilegitasunari eusten dion oinarritzko zutabe bat erortzea ekarriko luke, horrela bere egiturek errepresioan eta indarkeriaren monopolioan oinarrituta soilik iraun ahalko lukete.

ZERGA-PRESIOA EUROPAN: BILAKAERA ETA ANALISI KONPARATIBOA

Zerga-presioa, zerga-sistema batek, hura ezartzen den esparru geografikoan sortzen duen aberastasunaren arabera (BPG), lortzen dituen diru-sarreraren guztien diru-bilketa neurtzen duen ratioa da.

Zerga-presioa BPGaren portzentaian

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2007-2014
Europar Batasuna	39,3	39,2	38,5	38,5	38,9	39,6	39,9	40,0	0,7
Eurogunea	40,0	39,6	39,3	39,2	39,7	40,7	41,2	41,5	1,5
Belgika	45,2	45,8	45,2	45,5	46,2	47,3	48,2	47,9	2,7
Bulgaria	31,4	30,6	27,2	26,3	25,5	26,6	27,9	27,8	-3,6
Txekiar Errepublika	34,4	33,1	32,1	32,6	33,7	34,2	34,8	34,1	-0,3
Danimarka	47,7	46,1	46,5	46,6	46,6	47,2	48,1	50,8	3,1
Alemania	38,8	39,2	39,6	38,2	38,7	39,3	39,4	39,5	0,7
Estonia	31,4	31,6	35,1	33,5	31,7	31,7	31,7	32,5	1,1
Irlanda	32,1	30,4	29,0	28,6	28,2	29,1	29,5	30,5	-1,7
Grezia	33,5	33,7	32,9	34,2	36,1	38,3	38,3	39,0	5,5
Espainia	37,1	32,9	30,6	32,1	32,0	33,0	33,8	34,4	-2,7
Frantzia	44,3	44,3	43,9	44,1	45,2	46,5	47,4	47,9	3,6
Kroazia	37,1	36,8	36,4	36,1	35,2	35,9	36,6	36,7	-0,4
Italia	41,6	41,5	42,0	41,7	41,7	43,7	43,6	43,7	2,0
Zipre	36,4	35,1	32,1	32,2	32,2	31,6	31,6	34,2	-2,2
Letonia	28,4	28,1	27,5	28,0	27,9	28,7	28,7	29,2	0,8
Lituania	30,4	30,9	30,6	28,7	27,6	27,3	27,4	28,0	-2,3
Luxenburgo	37,4	38,1	40,0	39,0	39,2	40,2	39,5	39,4	2,0
Hungaria	39,7	39,7	39,2	37,5	36,9	38,6	38,2	38,4	-1,3
Malta	34,2	33,4	33,8	32,5	33,2	33,3	33,6	35,0	0,8
Herbehereak	36,6	36,9	35,9	36,7	36,4	36,5	37,2	38,0	1,4
Austria	41,5	42,4	42,0	41,8	41,9	42,5	43,3	43,8	2,2
Polonia	35,5	35,2	32,3	32,0	32,5	32,8	32,8	33,0	-2,5
Portugal	35,0	34,9	33,4	33,7	35,5	34,5	37,2	36,9	1,9
Errumania	29,6	28,3	27,0	26,9	28,1	27,9	27,4	27,7	-2,0
Eslovenia	37,3	36,8	36,7	37,4	37,0	37,4	37,3	37,0	-0,3
Eslovakia	29,3	29,1	28,9	28,2	28,7	28,4	30,3	31,2	2,0
Finlandia	41,6	41,3	41,1	40,9	42,2	42,8	43,9	44,0	2,4
Suedia	45,8	44,9	45,1	44,1	43,5	43,5	43,8	43,7	-2,1
Erresuma Batua	36,2	37,7	34,9	35,5	35,9	35,2	34,9	34,4	-1,8
EAE	32,2	30,5	29,0	29,9	29,5	29,7	30,5	30,9	-1,3
NFK	32,3	29,7	29,3	28,1	29,2	28,5	28,4	28,7	-3,7

Iturria: Eurostat, Eusko Jaurlaitza, Nafarroako Gobernua, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra, Eustat eta IEN

Europako Erkidegoko Estatistika Bulegoak (Eurostat) erabiltzen duen zerga-sarreraren definizioak bere baitan biltzen ditu administrazio publiko orok bildu dituen zerga eta gizarte-kontribuzio guztiak. Arabari, Bizkaiari, Gipuzkoari eta Nafarroari

dagokienez, gogoan izan ditugu tributu itunduen eta udal-zergen bidez jaso diren diru-bilketak eta Gizarte Segurantzaren bidez sartu diren kuotak.

Eurostatek eman duen informazioaren arabera, 2014ean, Europako Batasunaren zerga-sarrerak BPGren %40a izan ziren, eta Eurogunean, %41,5a. Hala ere, alde nabariak daude Estatu hauetan ezartzen diren zerga-presioen artean.

Danimarka dugu EBko buru, haien zerga-sarrerak BPGren %50,8koa izanik. Haren jarraian, Belgika eta Frantzia ditugu, biek %47,9arekin. Zerrendako azkenak Errumania eta Bulgaria ditugu, %27,7arekin eta %27,8arekin, hurrenez hurren.

Halaber, honekin batera eransten dugu taulan egiazta dezakegu 2012. urteaz geroztik, Europako Batasunaren batez besteko zerga-presioak berriro gaitu zituela krisialdi aurreko mailak; datu horrek ezin dezake ezkuta zerga-presioak oso jokaera ezberdinak izan dituela kide diren 28 Estatuetakoko bakoitzean. Izatez, 2014. urtean, erkidegoko bazkideen erdiak oraindik ez zuten gaitu ekonomia-finantza krisialdiak eta murrizketa politikek eragin duten diru-bilketaren gainbehera.

Badira hainbat arrazoi ezberdintasuna azaltzen dutenak; baina zerga-sareren bilakaerari gehien eragiten dien eragileen artean, nabarmentzen dira, krisialdiaren intentsitatea eta iraupena (enpleguari, kontsumoari, ekoizpen egiturari,... eragiten diena) eta zerga-legerian sartu diren aldaketak.

Hala ere, adibide hauetan guztietan, ondorio irmo eta baliagarria atera dezakegu: zenbat eta apalagoa izan zerga-presioa, are eta txikiagoa izango da sektore publikoaren tamaina, eta urriagoa izango da ere haren jarduteko gaitasuna kalitateko zerbitzu publikoen eskaria betetzeko, babes sozialen politikak indartzeko edota ekonomiaren suspertzea eta enpleguaren sorrera eragiteko.

HEGO EUSKAL HERRIKO ZERGA-PRESIOA, EUROPAKO BATASUNEN TXIKIENETAKOA


Hego Euskal Herriari dagokionez, eskuragarri dauzkagun azken datuon arabera, 2014. urtean, zerga-sarrerak BPGren %30,4koak ziren. Horrek, Europako Batasunaren herriekin alderatuta, zerga-presio txikienetakoa dutenen artean kokatzen gaitu, gutxi gorabehera, hamaika puntu Eurogunearen batez bestearen azpitik.

Horren sakona den zerga-arrakalak adierazten digu tarte handia dugula diru-bilketa handitzeko, gure ingurune ekonomikoan dauden estandarrekin bat egin arte. Azken batean, Hego Euskal Herrian Eurogunearen batez besteko zerga-presio orokorraren baliokidea ezarri, diru-bilketa, gutxi gorabehera, 9.400 milioi eurotan handi liteke.

Kopuru izugarri handi horren munta zenbatekoa den jabe gaitzen, izan gogoan, Gasteiz eta Iruñeko autonomia erkidegoek gizarte-gastuetara esleitzen duten aurrekontua 9.477 milioi eurotakoa dela.

Puntu honetara iritsita, merezi du aztertzea zertan dautzan gure zerga-sistemaren egitura eta administrazioaren mailen arteko zerga-eskuduntzen banaketa.

Zerga-sarrera guztiak, 2014ko BPGarekiko proportzioan



Hego Euskal Herrian bildu diren zerga-sarreren %59,1, gutxi gorabehera, tributu itunduen bidez dator (Estatuak transferitu dituen zeharkako zergen doitzeak barne). Dena den, lurraldeen artean aldeak ematen dira, taulan ikus daitekeen bezala.

Bestalde, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak Hego Euskal Herrian ingresatu dituen kotizazio sozialak ditugu; hauek zerga bidez egindako diru-sarrera guztien %37,4a dira, gutxi gorabehera. Udal zergek gainontzeko %3,5a dakarte¹.

Zerga-egitura Hego Euskal Herrian (2014)

	ARABA-BIZKAIA-GIPUZKOA	NAFARROA
Tributu itunduak	%59,5	%57,4
Kontribuzio sozialak	%37,0	%38,9
Udal-zergak	%3,4	%3,7
Zerga-sarrerak guztira	%100	%10

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra eta IEN.

Berriz, tributu itunduak, batik bat, bi mailetan bil daitezke: zerga zuzenak eta zeharkakoak. Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako foru erakundeek, zeharkako zerga arloan, eskuduntza handiak dituzte, arautzeko gaitasuna barne. Hala ere, ez Kontzertu Ekonomikoak, ez eta Nafarroako Hitzarmenak ere, ez dute eskuduntzarik zeharkako zergak arautzeko. Azken hauek, itundutako tributuen bidez biltzen diren sarreren %52a inguru dira.

Zerga-arloan, eskuduntza banaketari helduz, gogoratu beharko genuke Estatuak bere gain hartzen dituela oinarrizko legeriari eta Gizarte Segurantzaren ekonomia erregimenari loturiko eskuduntza eksklusiboak.

Honez gain, gobernu zentralak eskuduntza araugileak ere gordetzen ditu zeharkako zergarik nabarmenenak arautzeko. Hortaz, ondorioztatzen dugu Hego Euskal Herrian bildu den zerga-sarrera guztien 2/3ak baino gehiago zergetan eta kontribuzio sozialetan duela jatorria. Hauek arautzea Estatuaren administrazio zentralaren ahalmen arauemaileari lotzen zaio.

¹ 2014ko ekitaldian udal diru-sarreren likidazioari buruzko daturik ezean, irizten diogu, zerga-sarrera guztiekiko alderatuz, udal-zergen garrantzia 2013koa bera dela.

BURUJABETZA FISKALA BERRESKURATU: EZ DAGO BIDEZIDORRIK

Aurreko ataletik ondoriozta dezakegu gure erakundeek zerga batzuen gain bakarrik dutela ahalmen arauemailea, eta haren garrantziak, egun, jasan ohi den zerga-presio orokorraren %32a soilik ordezkatzeko du.

Horregatik, LABen aldarrikapen garrantzitsuenetako bat burujabetza fiskal osoa berreskuratzea da; helmuga hori nekez lortuko dugu aldez aurretik ez badugu independentzia politikoa erdiesten.

Halaber, guztiz ezegoki ikusten dugu zerga arloan eskuduntzak non lekutu behar diren orain eztabaidatzeari. EAEn indarrean dagoen antolatze eredu politiko-instituzionala eta hura artikulatzen dituzten baliabide juridikoak eztabaidaezinak dira honi dagokionez: zerga arloan, ahalmen arauemailea, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako erakunde eskudun bakoitzari dagokio.

Hortaz, Zergak Armonizatzeko, Koordinatzeko eta Lankidetzako Legea argudiatzeak, Gasteizeko Legebiltzarrak bere gain har ditzan gaur egun Batzar Orokorrei esleitzen zaizkien eskuduntzak, ez du zehaztasun juridikorik.

Modu berean, egungo egitura instituzionala berritze aldera operazio politiko bati ekiteak ere ez luke zentzurik, haren helburu bakarra eskuduntzak barne mailan aldatzea besterik ez bada.

Gisa horretako tamaina lukeen maniobra egiteko, Lurralde Historikoen Legeak ezezik, Kontzertu Ekonomikoa, Estatutua eta Espainiako Konstituzioa bera ere aldatu beharko lirake. Nahasmen gehiegi ibilbide estrategikorik ez duen, eta egungo autonomia esparrua hobetzera eta iraunaraztera bideratu den proiektu batentzat.

ZERGA-SISTEMAREN EGINKIZUN BIRBANATZAILEA SENDOTU

Gizarte zuzenagoa eta solidarioagoa lortzeko helburua gure lehentasun estrategikoen parte ere bada. Izatez, ekonomian sektore publikoaren esku hartzea azaltzen duen arrazoi nabarmenik badago, berdintasuna eta errentaren birbanatzea sustatzea da hain zuzen; horrela, oinarriko premiak eta gizarte osoaren eskubide ekonomiko eta sozialak betetzen direla bermatu ahal izango da, sektorerik kaltetuenak barne.

Baina azken urteotan oso paradoxikoa den egoera baten lekuko gara. Langabeziaren, prekarietatearen, azpi-enpleguaren eta soldatek balioa galdu izanaren ondorioz (beste faktore askoren artean), ezberdintasunak eta txirotasunak nabarmenki egin dute gora; honela, gizarte-zatiketa jazotzeko arriskua areagotu da. Hala ere, krisiari aurre egin nahian ezarri diren talkako politika gehien gehien xedea ez da izan txirotze prozesu honen ondorioak arintzea, alderantziz baizik.

Zerga-bilketa behera egitearekin batera, "austeritate neurriek" are gehiago ahuldu dute jadanik mugatua den sektore publikoaren ahalmen birbanatzailea.

Indarrean dagoen zerga-sistemaren ezaugarri nagusiak

Lehenengo eta behin, garrantzitsua da berriro azpimarratzea Hego Euskal Herriko zerga-sistemak bilketarako gaitasun urria duela; hori agerian geratu da egiaztatu dugunean gure zerga-presioa, gutxi gorabehera, hamaika puntutan Eurogunekoaren batez bestearen azpitik dagoela.

Hortaz, zerbitzu publikoetan eta gizarte babesean, Europako herrialderik garatuenekin parekagarria den garapen maila lortzeko, ahalegin fiskalean ere bat egin beharko dugu.

Horrez gain, ekonomia eta finantza krisialdia honetan, zerga-sarreretan izan den murriztea Europako Batasun osoan orokortu da; hala ere, Estatu kide batzuen kasuan, bilketaren gainbehera askoz ere larriagoa izan da.

Zehaztearren, espainiako Estatuak zergen bidez egin diren sarrera beherakada handiena pairatu du. Bilketa-kolapso horren handia gertatu zen 2007 eta 2009 urte bitartean, zerga-presioak sei puntu eta erdian egin zuela behera.

Nafarroako Foru Erkidegoan ere, presio fiskalak 4,2 puntura arteko galera izan zuen; eta 2014.ean (eskuragarri daukagun azken datua), oraindik, krisialdia aurreko maila baino 3,7 puntu beherago zegoen.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, presio fiskalak 3,2 puntu egin zuen behera 2007 eta 2009 urte artean. 2014. urtean, 1,3 puntu azpitik jarraitzen zuen, 2007. urtean lortu zen balioarekin alderatuta.

Honek, gure zerga-sistemaren ahultasuna erakusten du krisi egoera baten aurrean. Ekonomia hedatu zen urteetan, zerga-sarrerak nabarmenki handitu ziren, hein handi batean, kreditu errazak eta higiezin burbuilak sustatuta. Baina kreditu merkearen aldia amaitu eta burbuila espekulatiboa zulatu ostean, jazoera hauei estukien loturik zeuden diru-sarrera publikoak desagertu ziren, berriro ez itzultzeko.

Ondoren gertatu zen enplegu suntsipenak eta etxeetako eta administrazio publikoen kontsumoa ondoratu izanak eragin zuten gainerakoa. Azken finean, bilketaren muina lanaren errentari eta kontsumoari egiten zaien ezarpenean oinarritzen da.

KARGA FISKALEN BANAKETA BIDEGABEA

Hala ere, argi izan behar dugu, zerga-sarreraren jaitsiera ez dela krisialdiaren ondorioz bakarrik jazo. Azken hamarkadetan, zerga-politikan eman diren joera nagusiek aberastasuna pilatzea eta elite baten pribilegioek errazten duten sarrera publikoen egitura moldatu dute.

Botere ekonomiko eta finantzarioen menpe dauden zerga-agintariak aberastasun handiei, kapital erreteiei eta enpresako irabaziei zergak urritzen dizkieten zerga-sistema eratu dute.

Kapital eta aberastasun errenten ikuskapena gero eta txikiago bihurtu izana zerga kargaren zati bat lan errentekin ordezkatzu orekatu da. Era berean, zerga zuzenak zeharkako zergengatik ordezkatu dituzte, BEZa eta ondasun jakin batzuei ezarri zerga bereziak handituz. Honela, guztiz bidegabea den eta kontsumoren eta lan errenten oso menpekoa den zerga-sistema eratu da.

Zeharkako zergak errenten banaketan duten eragin kaltegarria.

Zeharkako zergak dakarten arazorik handiena haien progesibitate eza da, edo hobeto esatearren, erregresiboak direla, errenten banaketa ekitatiboa erraztu baino, diru-banaketan hasierako ezberdintasunak are gehiago larriagotzen dituzte.

Zeharkako zergak kontsumoa zergapetzen dute, eta normahiri berdinean ezartzen zaizkio, edozein gaitasun ekonomikoa duela ere; baina, berez, sarrera-txikien dutenei zerga-ahalegin handiagoa dakarkie.

Laburki azaltzeko, kontuan hartu behar da diru-sarrera urriko pertsonak ez dutela aurrezteko gaitasunik, haien errenta osoa edota zati handia ondasunak eta zerbitzuak erosiz, oinarritzko premiak betetzeko gastatu behar dituztelako. Aldiz, diru-sarrera handienak dituztenek, txiroek baino errenta proportzio txikiagoa xedatzen dute kontsumora. Horregatik, haien errenta mailari loturiko zeharkako zergengatik jasan ohi duten zerga-ahalegina txikiagoa da.

Jakina, nahiz eta zeharkako zergen bilketa handiagoa izan, are handiagoa izango da zergapetze-sisteman sartu den erregresibitatea.

Langileriak kapitalak eta enpresek ordaintzen duten zuzeneko zergen bikoitza ordaintzen du.

Egungo ekonomia ereduan kapitalaren jabeak langilegari gailendu zaizkio. Horrek, kapital eta lan errenten banaketa aldakorra ezartzea ahalbidetzen die. Egoera honi erantsi behar zaizkio krisialdian burutu diren erreforma sakonak, hauek lan eskubideak ahultzea, lan baldintzak okerrera egtea eta soldatak sakonki devaluatu izana ekarri dute.

Faktore hauek errentak, soldatetatik kapitalera transferitzeko bitartekoak sendotu dituzte. Honen ondorioz, soldata-masak errentarengan duen partaidetza (BPG) etengabeko atzerapena jasaten ari da, enpresako irabazien alde.

Errentaren banaketa funtzionalari dagokion informazioaren arabera, soldata-ordainketen pisua BPGren %48,7 inguruko mailalara erori da. Bien bitartean, enpresarien gutxiengo txiki batek BPGren %41,7 pilatzen du.

HEGO EUSKAL HERRIA	2010	2011	2012	2013	2014
SOLDATA-ORDAINKETAK	%50,8	%50,5	%49,3	%48,9	%48,7
USTIAPENENKO SOBERAKIN GORDINA	%40,7	%41,3	%41,9	%41,7	%41,7
BARNE PRODUKTU GORDINA	%100	%100	%100	%100	%100

Iturria: Autonomietako kontabilitatea, INE

Bagenekien ekoizpen eragileen arteko banaketa eredu ez dela ekitate irizpidetan iradokitzen. Hala ere, azken urteotan oinarriak jarri dira pilatze aldi berri bati berrekiteko, aberastasun metaketa handiagoa bermatuko duten baldintzak paratuz; ezberdintasunek larriagotzen iraungo badute ere.

Hala ere, espero genezake errealitate honek behintzat errenta-iturri bakoitzak, hots, lanaren eta kapitalaren errentak, jasan ohi duten zerga-kargan isla izango zuela.

Aitzitik, zerga-estatistikek ematen duten informazioak agerian uzten du lanaren errentek eta kapitalak BPGn duten garrantziaren eta errenta-iturri hauetako bakoitzak zuzeneko zergengatik jasaten duten zerga karagaren arteko aldea izugarria dela.

Gogora dezagun zuzeneko zergek zergadun bakoitzaren (persona fisikoa edo juridikoa izanik ere) gaitasun ekonomikoaren aitortzen zuzena eta berehalakoa zergapetzen dutela, adibidez errenta bat lortzea edota ondarea izatea.

Honen harira, EAEko Zerga Koordinaziorako Organoak adierazi du PFEZ bidez bildu den %85a baino gehiago lanaren errentatik datorrela², nahiz eta BPGren %49a baino gutxiago izan. PFEZ bidez bildu den gainontzekoa (%14,6a gutxi gorabehera) jarduera ekonomikoetan eta profesioaletan, kapital higigarrien eta higiezinaren etekinetan eta ondarezko irabazietan du jatorria.

PFEZ gain, sozietateen gaineko zerga bidez lortzen diren sarrerak kontuan hartzen badugu, ikusiko dugu lanaren errentek zerga zuzenen bidez norberaren errentaren eta enpresa irabazien gainean lortu den bilketa osoaren %66,4 inguru eransten dutela.

Bien bitartean, kapital errentek eta enpresa irabaziek egiten duten zerga-ekarpena PFEZ eta Elkarteen gaineko Zerga bidez egin ohi den bilketa bateratuaren %33,6koa da.

Hots, lanaren errentek kapital errendimenduen eta enpresa irabazien bikoitza ordaintzen dute. Hauxe da, zalantzarik gabe, gure herrian zerga-kargak bidegabeki banatzen direla adierazten duen datu esanguratsua.

Paul Krugmanek bere buruari galdetzen zion erretorikaz, egin zuen azken lanetako batean, ea horrenbesteko ezberdintasuna beharrezkoa ote zen. Ekonomia nobelaren ironia parafraseatuz, galdetu beharko genuke ea benetan beharrezkoa ote den horren erregresiboa den sistema.

GURE PROPOSAMENA

Sektore publikoak zeregin birbanatzaile garrantzitsua jokatu behar du, zerga-sarreraren zein gastu sozialaren aldetik. Hala ere, sektore publikoaren eginkizun soziala etengabe ahultzen eta ahultzen ari da, eta joera hau, azkenaldian bizkortzen ari da.

Funtsezko zerbitzu publikoetan egin behar den gastuan murrizketa mingarriak gertatzen ari dira, adibidez, osasungintzan, hezkuntzan edota menpekotasunean. Etengabea izan da ere, gizarte babes sistema osoaren aurka bideratu den erasoa; honek pentsio publikoen, langabezia prestazioen eta errenta minimoen programen estaldura mailan narriadura nabarmena eragin du.

Diru-sarrerei dagokienez, egin den bilketa nabarmenki eznahikoa da aurrekontu betebeharrak betetzeko, eta bestalde, zerga ahaleginak ez dira zuzentasunez banatzen.

Honengatik guztiarengatik, diru-bilketari dagokionean, zerga-presioak Europako herririk aurreratuenekin bat egin beharko lukeela deritzogu. Horrela bakarrik gizarte solidarioagoa eraikitzeke behar diren baliabideak izango ditugu, izango genukeen gizarte babeserako eredia eskuzabalagoa izango litzateke eta kalitateko zerbitzu publikoak garatuagoak izango lirateke.

Halere, zerga-baliabideak areagotzeak ez du berekin ekarri behar langilegoari zergak handituko zaizkiola, hark, dagoeneko, PFEZ, BEZa eta zerga berezien bidez, gehiegizko ahalegin fiskala pairatzen baitu. Honen haritik, egokiena zerga-sistemaren egitura berrantolatzea izango litzateke, karga-fiskalak berdintasun handiagoz esleitu ahal izan daitezten.

² 2013ko Euskal Ogasunaren Urteko Txosten Integratuak jasotzen duen moduan, lanaren errentek PFEZaren zerga-oinarriaren %92,2 osatzen dute. Era berean, kuota oso orkorrek kuota oso guztiaren %92,6 suposatzen du. Ondorioz, bi datuok kontuan hartuta ondoriozta dezakegu PFEZak bildutako %85,4a laneko errentetatik datorrela. Nafarroako Zerga-Ogasunak ez du honen inguruko hain informazio zehatzik errazten, baina onartzen du PFEZean aitortutako errenten %87,6a soldatapeko lanetik datorrela onartzen du.

Zerga politika arloan egiten dugun proposamenaren oinarriko ardatzak dirateke:

- Burujabetza fiskal osoa berreskuratzea; xede hau lortezina da egungo Kontzertu eta Hitzarmen Ekonomikoaren sistemarekin.
- Errenta guztiei zerga-tratamendu bera ezarri, kapital errentek eta enpresako irabaziek gaur egun dituzten abantailak ezabatuz.
- PFEZren gehikortasuna indartu, horrela saihestuko da zergaren ondorio birbanatzaileak lanaren errentan bakarrik sostengatzea eta ziurtatuko da gehien daukanak gehiago ordainduko duela.
- Ondorio erregresiboa dakarten zerga murrizketak eta kenkariak ezabatu, batez ere, diru-sarrera handienak dituztenentzat onuragarri delako; horren adibide, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitateei edota gizarte-aurreikuspeneko beste sistema pribatuari egin ekarpenak.
- Sozietateen gaineko Zergari loturiko kenkariak eta hobariak ezabatu, haren xedea enpresei zerga faktura murriztea delako.
- Enpresa mota jakin batzuei ezarri ohi zaizkien karga-tasa urriagoak erabiltzen dituzten erregimen bereziak berrikusi.
- Zerga-oinarri negatiboen konpentsazioa mugatu zaie (galerak) zerga-zorren preskripzio aldian dauden ekitaldiei.
- Pilatu diren ondare-ondasun guztiak kontuan hartu duen aberastasunaren gaineko zergaren aplikazioa orokortuko da, enpresarien partizipazioak barne hartuz.

Dena dela, zerga-erreforma oro partziala eta osagabea izango da aberastasunaren banaketa zuzenagoa erdiesteko, iruzurraren eta zerga-plangintza erasokorraren aurka buru-belarri borrokatu ezean. Horrengatik, ezinbestekoa deritzogu:

- Enpresen eta zerga-agintarien artean lot daitezkeen isilpeko itunak (tax rulings) isun handiekin jazartzea eta zigortzea, hauek abantaila hautakorrak ematen baitituzte irabaziak desbideratzeko eta ehunka milioi eurotako ordainketa saihesteko zergetan.
- Zerga-paradisuetan ezartzen diren enpresen jarduera edota aipatu herrietan diharduten filialen jarduera eragozte, zailtzea eta zigortzea.
- Egiatapenean eta zerga ikuskapenean diharduten giza baliabideak eta teknikoak handitzea.
- Zigortze erregimena gogortzea eta antzeman diren urratzei zorrotasunez ezartzea, aitorten osagarriak aurkez ditzaten utzi beharrean.